

INGURUMEN HEZKUNTZA IRUÑA

JASANGARRITASUN ESKOLA

2023ko UDABERRIA



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udako



60
Educatiboa
Educatiboa - Ingurumen Hezikuntza



T. 948 14 98 04 / 948 42 09 84

www.educacionambiental.pamplona.es
educacionambiental@pamplona.es

f @GoGreenPamplona
t @GoGreenPamplona
i @gogreenPamplona

Goizez, asteartetik ostiralera. 10:00 – 13:00.

Arratsaldez, asteartetik ostegunera. 18:00 – 20:00.

ASTE SANTUA

Apirilaren 11tik 14ra, goizez bakarrik.

ECOZINE JAIALDIA

Apirilaren 17tik 20ra arratsaldeko jarduerak Golem Baiona zinema-aretoetara lekualdatuko dira.

Errotazar k. 21 bis, 31014 Iruña



Udaberrian bitzta esnatzen dela nabaritzen dugu inoiz baino gehiago eta kanpora atera beharra dugu.

Jasangarritasun Eskolaren udaberriko programazioarekin Iruñeko hainbat txokotara jotzera gonbidatzen zaituztegu, baina baita zinema-aretoak okupatzera ere, Iruñeko Ecozine Nazioarteko Jaialdiaren 5. edizioan.

Gainera, airearen kutsadurari buruzko Herritarren 2. zientzia laborategiak emaitzak eskainiko dizkigu udaren atarian, hirian ohikoak diren hegaztiei buruzko hitzaldi bat egingen da eta familia eta helduendako lantegiekin osatuko dugu programazioa.

Gure asteko buletinera harpidetzea gomendatzen dizuegu, bai eta gure webgunea eta sare

sozialak kontsultatzea ere, balizko aldaketen berri izateko.

Jarduera guztiak doan dira parte-hartzaileendako, baina diru publikoaren gastua eragiten dute. Mesedez, egiaztatu libre zaudetela izena eman baino lehen.

Izan ere, bajek eragiten ahal dute itxarote-zerrendan daudenek ezin izatea hutsik geratutako lekuak bete.

Herritarrak abian

Hitzaldi-solasaldiak eta irteerak

Lantegiak eta ikastaroak

Iruña berdea da

Ecozine Jaialdia

Erakusketak

Merkatu txikia

Zeureganatu Museoa

Abril

Lun	Mar	Mié	Jue	Vie	Sáb	Dom
					1	2
3	4 Ciencia Ciudadana ¿Qué aire respiramos? Sesión de Entrega	5	6	7	8	9
	Ex	Ex	Ex	Ex		
10	11	12 Mercadillo de intercambio de juguetes	13	14	15	16
	Ex	Ex	Ex	Ex		
17 Festival Ecozine*	18 Festival Ecozine*	19 Festival Ecozine*	20 Festival Ecozine*	21	22	23
	Ex	Ex	Ex	Ex		
24	25 Charla: Aves urbanas de Pamplona su distribución y abundancia	26 Grupo de Acción Climática	27 Taller: Repara tu bici-Bizibxoko	28	29	30
	Ex	Ex	Ex	Ex		

*Esta actividad no se realiza en el Museo. Consultar en el interior.

Ex **Exposición:** ECO-SISTEMAS de carteo. Del 4 de abril al 16 de junio.

Mayo

Lun	Mar	Mié	Jue	Vie	Sáb	Dom
1	2 Pamplona es Verde: Paseo geológico por el paseo fluvial de Pamplona*	3	4	5	6	7
	Ex	Ex	Ex	Ex		
8	9	10 Pamplona es Verde: Creando en la Naturaleza*	11 Salida: ¿Qué vamos a hacer en el Ezcaba? Actuaciones forestales en el pinar y la superficie quemada*	12	13	14
	Ex	Ex	Ex	Ex		
15	16 Pamplona es Verde: Plantas medicinales*	17 Taller: Arte y Naturaleza para familias 0 a 3 años	18 Taller: Repara tu bici-Biziboko	19	20	21
	Ex	Ex	Ex	Ex		
22	23 Pamplona es Verde: La Mitología de los árboles*	24 Grupo de acción climática	25	26	27	28
	Ex	Ex	Ex	Ex		
29	30 Pamplona es Verde: Taconera en Familia* CAST	31				
	Ex	Ex	Ex	Ex		

*Esta actividad no se realiza en el Museo. Consultar en el interior.

Ex **Exposición:** ECO-SISTEMAS de carteo. Del 4 de abril al 16 de junio.


Junio

Lun	Mar	Mié	Jue	Vie	Sáb	Dom
			1 Pamplona es Verde: Taconera en Familia* EUSK	2	3	4
5			Ex	Ex		
	6	7	8 Ciencia Ciudadana ¿Qué aire respiramos? Resultados Informe	9	10 Salida: ¿Qué vamos a hacer en el Ezcaba? Actuaciones forestales en el pinar y la superficie quemada*	11
	Ex	Ex	Ex	Ex		
12	13 Mercadillo de intercambio sin dinero	14 Mercadillo de intercambio sin dinero	15 Mercadillo de intercambio sin dinero Taller: Repara tu bici-Bizitxoko	16 Mercadillo de intercambio sin dinero	17	18
	Ex	Ex	Ex	Ex		
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30		

*Esta actividad no se realiza en el Museo. Consultar en el interior.

Ex **Exposición:** ECO-SISTEMAS de carteo. Del 4 de abril al 16 de junio.

GUTUN-EKO SISTEMAK. “IRUÑA: HIRIA EKOSISTEMA GISA” EGONALDI ARTISTIKOAN HAUTATUTAKO PROIEKTUA



Maidier Garayo, Paula Torán eta Nahia Villanueva

Apirilaren 4etik ekainaren 16ra Museoaren ordutegian.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Herritarrei parte hartzeko egindako dei baten bidez hiriarri ekosistema gisa erreferentzia egiten zioten objektuak bildu ziren. Pieza hauek hartu-emanetan daude Uharteko Arte Garaikidearen Museoak eta Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak bultzatutako egonaldi artistikoan **Maidier Garayok, Paula Toránek eta Nahia Villanuevak** ondu duten testuinguruarekin.

Nola bizi gara, nola sentitzen dugu eta nolako harremanak ditugu gure ingurunearekin?

Proiektuaren helburua da artearen bidez testuinguru jakin batean arakatzea, Iruñeko ekosistema kasu, eta horrela, harreman berriak eraikitzea sormen-prozesuen artean. Analogia bisual, testual eta objektualen bidez egin dute; horixe dira, hain zuzen, jasotako eta erakusketa honetan ikusgai paratu diren olerki, testu, gauza eta tramankuluak.

Sarrera librea.

HERRITARREN ZIENTZIA LABORATEGIA ETA AIREAREN KALITATEA: NOLAKO AIREA ARNASTEN DUGU? LANDAREEK EMANDAKO EMAITZA INTERPRETATUZ



Iker Aranjuelo

Apirilak 4, asteartea. 19:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Jardunaldi honen xedea da parte-hartzaileek ekarriko dituzten landareak biltzea, etxean/lanean bi hilabeteke epearen ondoren. Egun horretan, parte-hartzaile bakoitzak bere landarearen aireko parte bat moztu, eta guk banatuko ditugun paperezko gutun-azaletan sartuko du. Aldi berean, parte-hartzaileek adieraziko dute landareak izan dituzten bi hilabeteetan zehar aipagarritzat jotzen duten edozein gorabehera mota. IdAB-CSIC institutuko langileek laginak bildu eta laborategira eramanen dituzte alikuota egiteko eta dagokien mineral-konposizioa aztertzeko.

Iker Aranjuelo ikerlaria da Ikerketa Zientifikoaren Kontseiluan Nagusiko Agrobioteknologia Institutuan (IdAB-CSIC).

Izen-ematea, aurrez: saio hau ikertzeko landarea jaso zutenendako da.

JOSTAILUAK TRUKATZEKO AZOKA TXIKIA



Apirilak 12, asteazkena. 11:30 - 13:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Merkatuaren xedea da jostailuen trukea sustatzea, eta horrela, berrerabilpena bultzatzea, kontsumo-alternatiba bat eskaintzea eta jostailuen bizitza luzatzea. Haurrek dagoeneko erabiltzen ez dituzten jostailuak ekar ditzakete, betiere egoera onean badaude –edozein jolas, liburu, ipuin, puzzle eta abar izan daiteke-, eta horiek trukatzeko ahalko dituzte beste neska-mutil batzuek eramandako objektuekin. Haurrek –familiek lagunduta– erabakiko dute nola egin trukea; hala ere, Ingurumen Hezkuntzako taldea arduratuko da txikienak zeregin horretan gidatzeaz.

Sarrera libre.

ZINEMA ETA INGURUMENEO NAZIOARTEKO JAIALDIA



Ingurumen Hezkuntzako Lantaldea eta lan-dokumentalak egiteko Lantaldea

Maiatzak 17 (astelehena), 18 (asteartea), 19 (asteazkena) eta 20 (osteguna). 19:30.

TOKIA Golem Baiona zinema-aretoak

Ecozine berriz ere Iruñean da; sentitzeko, hausnartzeko eta jarduteko gonbidapena. Zinema gizartea eraldatzeko arte gisa. Ingurumeneko gaiak jorratzen dituzten lau saio dira, eta filmak egin dituzten taldeetako kideekin filmen inguruan hitz egiteko aukera izanen da.

Argibide gehiago hemen:

www.educacionambiental.pamplona.es

www.festivalecozine.es

Sarrera librea (aurrez txartela hartuta).

HIRI-HEGAZTIAK IRUÑAN: BANAKETA ETA UGARITASUNA



Juan Arizaga Martínez

Apirilak 25. 19:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Zenbat uso, mika eta txolarre dago Iruñean? Asko edo gutxi dago? Hiriguneetan hegaztien banaketa eta ugaritasuna ezagutzea funtsezkoa da kontserbazioaren zein izurrien kontrolaren ikuspegitik, kudeaketa- eta maneiu-neurriei eraginkortasunez ekiteko.

Juan Arizaga Martínez Biologian Doktorea da Nafarroako Unibertsitatean (2008) eta Aranzadi Zientzia elkarteko Ornitologia Saileko zuzendaria. Ikerketaren arloko bere lan profesionalak hiru ildo nagusi ditu ardatz: (1) hegaztien migrazioa, (2) gizakiari lotutako espezieen ekologia eta populazioaren dinamika eta (3) hegaztien biogeografia eta kontserbazioaren egoera.

Sarrera librea, leku guztiak bete arte.

KLIMA-EKINTZARAKO LANTALDEA



Proiektu honek Europar Batasuneko Horizon 2020 Ikerketa eta Berrikuntza Programaren finantzazioa jaso du, ID 101037080 dirulaguntza-hitzarmenaren bidez.

Iruñeko Udaleko Ingurumen Hezkuntzako lantaldea

Urritik maiatzera. 18:00 – 20:00.

Urriak 26, azaroak 30, abenduak 21, urtarrilak 25, otsailak 22, martxoak 29,
apirilak 26 eta maiatzak 24

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Telebistan klima-aldaketari buruzko albisteak ikusi eta itzali egiten duzu abailduta sentitzen zarelako? Klima-aldaketak kezkatzen zaitu eta ez dakizu nondik hasi zerbait egiten? Baietz erantzun baduzu, hau da zure taldea.

Gure egunerokotasunetik abiatuta (kontsumoa, energia edo elikadura) irtenbidearen parte izaten hasteko toki bat, hilean behin. Eta, batez ere, taldean ekiteko, gogobetetasuna eta esperantza ereinez.

Aurrez izena emateko: Ekimen hau urrian abiatu zen eta taldea osatuta dago.

KONPONDU ZURE BIZIKLETA-BIZITXOKOA



Juanjo Iriarte

Ostegunak: Apirilak 27, maiatzak 18 eta ekainak 15. 18:00 – 20:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Bizikleten konponketari buruzko ezagutzak partekatzeko eta gure bizikleta prest jartzen dugun bitartean edo besteei laguntzen diegun bitartean ongi pasatzeko sortu da gune hau.

Juanjo Iriarte konponketetan aditua da eta bertaratzen direnei laguntza eta aholkuak emanen dizkie.

Sarrera librea.

IBILALDI GEOLOGIKOA IRUÑEKO IBAI PASEALEKUAN BARNA



Fran Sanz Morales

Maiatzak 2, asteartea. 18:00.

TOKIA Iruñeko Ibai Parkea

TOPALEKUA Burlata eta Iruña arteko muga markatzen duen zubi zaharra

Landa-irteera honetan gure ingurune hurbilenenaren jatorria ulertuko dugu, nola osatu den horren paisaia aberats eta askotarikoa, eta zeintzuk diren aurki ditzakegun aztarnak gure hiriazen historia geologikoa "irakurtzeko", zeinak Arga ibaiaren eta haren isurkideen dinamika ardatz baititu.

Adibidez, gure hiriak ezkututzen dituen baliabide naturalak ezagutuko ditugu, zer den meandro bat eta nola osatzen den, edo zeintzuk diren ibaiaren jarduerari lotutako formak eta metaketak. Iruñerria mugatzen duten erliebeen jatorria eta zein motatakoak diren ezagutuko dugu, zein harriz osaturik dauden eta zein ingurunetan eratu ziren. Azkenik, ibaiak arrastaka daramatzen eta ibaiertzetan metatzen diren materialak modu atsegina eta dibertigarrian aztertuko ditugu. Amaitzean, gure ingurunea zaindu eta babestearen garrantziari buruzko gogoeta eginen dugu.

Fran Sanz Morales Nafarroako geologoa da, egun Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.

Izen-ematea, aurrez: Apirilaren 18tik aurrera, 010 edo 948 42 01 00era (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) deituta.

NATURAN SORTZEN



Ana Rosa Sánchez

Maiatzak 10, asteazkena. 18:00.

TOPALEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Ingurunean sortzeko lantegia, Ana Mendieta artistaren lanean oinarrituta. Gorputz-esperientziarekin eta gure ingurunean eragiten duen aztarnarekin harremanetan jartzeko denbora tarte bat, artearen bidez.

Horretarako, Museoaren inguruetan ibiliko gara eta gure gorputzaren formekin eta paisaiak eraikitzen dituen formekin berezko pieza bat sortuko dugu.

*Ez da beharrezko artean eskarmenturik edukitzea.

Ana Rosa Sánchez artista, arte-hezitzailea eta giza garapenean espezializatutako arteterapeuta da.

Aurrez izena emateko: Apirilaren 25etik aurrera, 010 edo 948 420 100era (mugikorretatik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) deituta.

IRTEERA

ZER EGINEN DUGU EZKABAN? BASO-JARDUKETAK PINUDIAN ETA ERRETAKO LURRAZALEAN

Maiatzak 11, osteguna. 18:00 – 19:30.

Ekainak 10, larunbata. 11:30 – 13:00.



TOPALEKUA Txantrea eta villavesen garajeen arteko zaldainean, Ezkabaren aldean.

Irteera hauen zentzua da herritarrei azaltzea Iruñeko Udalaren jabetzakoak diren Ezkabako hiru baso-masetako pinudietan aurreikusten diren baso-jarduketak. Masetako batean asmoa da erretako zuhaitzak erauztea, erortzean istripurik gerta ez dadin. Behin moztuta, hazkunde-garai bat itxarongo da mendiaren garapena ikusi eta esku-hartzea egokitzeko. Beste bi pinu-masei dagokienez, batean soilgune bat eginen da moztu gabeko enborrek garapena hobe dezaten, eta bestean, gehiago soilduko da pinuen azpian dauden baso hostozabalak (haritzak eta pagoak) garatzea errazteko.

Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko “Basozainak/Guarderio de Medio Ambiente”-ko kideekin eginen da irteera hau.

Irteerarako oharrak:

- Irteerek eduki bera izanen dute; beraz, interesa duten herritarrei eskatzen zaie bakar batean izena ematea.
- Ibilaldia aldapan gora da, kilometro bat gutxi gorabehera pista eta bidexketatik, eta beharrezkoa da oinetako egokiak eramatea.
- Irteerako topagunearen kokapenaren esteka, hemen: <https://goo.gl/maps/pey5M4LDaj8tTZdVA>

Aurrez izena emateko: 010 edo 948 42 01 00era (mugikorretik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) deituta:

- Apirilaren 25etik aitzina maiatzaren 11ko (osteguna) irteerarako.
- Apirilaren 30etik aitzina ekainaren 10eko (osteguna) irteerarako

IRUÑA BERDEA DA

SENDABELARRAK



Josean Vidaurre

Maiatzak 16, asteartea. 18:00.

TOPALEKUA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Lantegi honetan irteera labur bat eginen da inguruetara, gertuko ingurumarietan aurki ditzakegun landareak ezagutzeko.

Gero, Museora itzulitakoan, horien ezaugarri sendagarriak eta erabilera terapeutikoak hartuko dira hizpide, eta zalantza guztiei erantzunen zaie.

Josean Vidaurre nutrizionista eta fitoterapian aditua da.

Aurrez izena emateko: Maiatzaren 2tik aurrera, 010 edo 948 420 100era (mugikorretatik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) deituta.

ARTEA ETA NATURA 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HAURREN FAMILIENDAKO

Ana Rosa Sánchez

Maiatzak 17, asteazkena. 17:30 (ordubeteko iraupena).

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Esperientzia-lantegia honetan zentzumenen bidez forma berriak sortuko ditugu elkarrekin, sormena eta irekitasuna zabaltzea ahalbidetuko duten material natural eta organikoetan oinarrituta. Garen gorputzean eta naturan oinarritutako gunea, sortzeko gure berezko moduarekin.

Ana Rosa Sánchez eartista, arte-hezitzailea eta giza garapenean espezializatutako arteterapeuta da.

Aurrez izena emateko: Maiatzaren 2tik aurrera, 010 edo 948 42 100era (mugikorretatik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) deituta.

Izena ematean 10 familia-unitate onartuko dira, hau da, gehienez 10 haur heldu batekin edo gehiagorekin.

Familiendako jardueria, 0 eta 3 urte bitarteko haurrekin.

ZUHAITZEN MITOLOGIA



Aitor Ventureira

Maiatzak 23, asteartea. 18:00.

TOKIA Takonera parkea

TOPALEKUA sarbide nagusia Navas de Tolosa kaletik, kioskoaren ondoan.

Garai batean basoak oso antzinako kondaira zaharrak xuxurlatzen zizkigun, eta haren eskutik ibili ginen bere opariak gozatuz.

Garai batean zuhaitzek hitz egiten ziguten, emeki-emeki, beren hostoen azpian babestuta gordetzen ziren izaki mitiko, magiko eta misterioetsuei buruz.

Berriz ere antzinako ahots hori entzutera gonbidatzen zaituztegu, berriz ere baso izatera, zuhaitzek biltzen dituzten ipuin zaharrak berriz entzutera, gure arbasoek eman zieten antzinako erabilerak berriz ere aurkitzera. Gure lagun zaharren magia sentitzera. Gonbidatzen zaituztegu, unetxo batez besterik ez bada ere, izan ginena, garena, berriz izatera.

Aitor Ventureira natur-gida, ingurumen hezkuntzako begiralea, Hojarasca kultur-elkarteko lehendakaria, idazlea eta basoaz maitemindua da.

Aurrez izena emateko: Maiatzaren 9tik aurrera, 010 edo 948 42 100era (mugikorretatik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) deituta. .

EZAGUTU DEZAGUN TAKONERA FAMILIARTEAN



Gabi Berasategui (Ornitolan S.L.)

GAZTELANIAZ: Maiatzak 30, asteartea. 17:00.

EUSKARAZ: Ekainak 1, osteguna. 17:00.

TOKIA Takonera parkea

TOPALEKUA sarbide nagusia Navas de Tolosa kaletik, kioskoaren ondoan

Hiria, bere kaleak, zuhaitzak eta parkeak batzuetan ezezaguna den eguneroko biodibertsitate baten etxe dira. Haurrei egokitutako interpretazio-ibilbide baten bidez, hurbilpen bat eginen dugu Takonerako fauna eta flora ezagutzeko, baita bertako espezieak, tokiak eta ezaugarriak ere.

Gabi Berasategui biologoa da, eta eskarmentu handia du Nafarroako biodibertsitatea ikertzen eta hedatzen.

Aurrez izena emateko: Maiatzaren 16tik aurrera, 010 edo 948 42 100era (mugikorretatik edo Iruñeaz kanpotik deituz gero) deituta.

Familiei zuzendutako jarduera. 6 urtetik gorakoak, heldu batek lagunduta

HERRITARREN ZIENTZIA LABORATEGIA ETA AIREAREN KALITATEA: NOLAKO AIREA ARNASTEN DUGU? LANDAREEK EMANDAKO EMAITZA INTERPRETATUZ



Iker Aranjuelo

Ekainak 8, osteguna. 19:00.

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Jardunaldi honetan, Agrobioteknologia Institututoko (IdAB-CSIC) langileek otsail-apirila bitarte hiriko hainbat tokitan hazi diren landareetan antzemandako metal astunen (eta beste elementu mineral batzuen) emaitzak emanen dituzte. Emaitzak azaltzarekin batera, herritarrek lortutako emaitzen interpretazioan parte hartzea bilatuko da. Horrela, herritarrek airearen kalitatean inplikaturako faktoreei buruzko espiritu kritikoa garatzen ahaliko dute. Aipatu gogoeta ideia-jasa batekin amaituko da, eta parte-hartzaileek hiriko airearen kalitatea hobetzeko eskura dituzten neurri zuzentzaileak proposatuko dituzte.

Iker Aranjuelo Aranjuelo ikerlaria da Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusiko Agrobioteknologia Institutuan (IdAB-CSIC).

Sarrera librea, leku guztiak bete arte.

DIRURIK GABEKO TRUKE-AZOKA TXIKIA



Ekainaren 13tik 16ra, Museoaren ordutegian

TOKIA Ingurumen Hezkuntzako Museoa

Erostearen ordez beste alternatiba bat eskaintzen da: berrerabilpena sustatzea. Horrela ingurumena zaintzen laguntzen da, lehengaiak eta energia aurrezten direlako. Azokan denetarik aurki daiteke: arropa, zapatak, beira-aleak, liburuak, jostailuak, etab. Parte-hartzaileek egoera onean dauden baina erabiltzen ez dituzten gauzak ekartzen dituzte, besteendako interesgarriak izanen direlakoan. Aste bakoitzean sei gauza trukutzen ahalko dira, gehienez ere, betiere antzeko balioa duten objektuen truke. Trukea Ingurumen Hezkuntzako Lantaldeak gainbegiraturako du, era orekatuan eta ordenatuan egiten dela bermatzeko.

Sarrera librea.

MUSEOA ZEUREGANATU

Museoak bozgorailu gisa jokatu nahi du eta elkarteek, ikastetxeek eta kolektiboek egiten dituzten ingurumen- eta gizarte-proiektuak zabaldu. Horretarako, bertako instalazioak eta hedapen-bideak erabiltzeko aukera ematen du unean uneko ekimen, lan, erakusketa, hitzaldi eta abarretarako. Hitzaldi-aretoa, ikasgelak, bilera-gelak eta erakusketa-gunea ditugu.

educacionambiental@pamplona.es

